

Euskal mitologia: Eguzkilo



ILARGI



EGUZKI



EGUZKILORE

Elezaharraren arabera, bizitzaren hasieran, Lurra ilunpean zegoen, argirik gabe. Gizakiek erreguka eskatu zioten Mariri espiritu eta numen gaiztoen kontra borroka egiten laguntzeko. Orduan, Marik alaba eduki zuen, Ilargi. Gizakiek asko eskertu zioten Ilargiren argia eman ziotelako, baina hura ez zen nahikoa gaizkiaren kontra borrokatzeko; argi gehiago emango zuen zerbait eskatu zioten.

Marik, orduan, beste alaba sortu zuen, Eguzki. Horrela sortu zen eguna. Orduz geroztik, espiritu gaiztoak ez ziren egunez gizakiak mehatxatzera ausartu. Baina Eguzki ezkututzen zenean gaua sortzen zen. Eta gaizkia bere gordelekutik atera, eta gizakiak mehatxatzen jarraitzen zuen.

Gizakiek Mariri berriro eskatu zioten laguntza. Orduan, Eguzki Lore sortu zuen Marik. Gauez beren bizitokietatik ez ateratzeko eskatu zien Marik gizakiei, eta beren etxeetako atean eguzki loreak jartzeko esan zien. Geroztik, gizakiek Marik esandakoa bete zuten, eta ez zuten gaizkiaren kalterik izan berriro.

1. Hasieran nola zegoen Lurra? _____
2. Zenbat alaba ditu Marik? Nola dute izena? _____
2. Non jarri behar da eguzkiloa izpiritu gaiztoengandik babesteko? _____